



1. LERROA:

Zer obra finantzatzen dira?

- **1. Mota. Kontserbazio- eta bizigarritasun-obrak:** elektrizitatea, saneamendua, hornikuntza, hondakinen kudeaketa; konfort akustikoa, lokalak etxebizitza bihurtzea, fatxada...
- **2. Mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak:** berotze- eta hozte-sistemak, aireztapena, etxeko ur beroa, argiteria, energia elektrikoaren autokontsumoa, inguratzaile termiko eta akustikoa, barruko airearen kalitatea, isolamendu termikoa eta akustikoa, kanpoko zureria, leiho eta galdarak aldatzea, etab.
- **3. Mota. Hobekuntzak irisgarritasunean:** komunak egokitzea, antolamendua aldatzea, desgaitasun sentzoriala duten pertsonentzat egokitzea...
- **4. Mota Eraikuntzako printzipio onen erabileretara egokitzea:** igeltserotzako, eskaiolako, barneko arotzeriako, iturgintzako lanak, etab. Elektrizitate-, telefono-, berogailu- eta gas-instalazio partzialak, eta pintura, etab.

Zer gastu ordaintze dira?

- Profesionalen soldatak.
- Birgaitze-jarduerak kudeatzeaz arduratzen diren finken edo profesionalen administrazioaren zerbitzu-sarien kostuak
- Kontrata bidezko gauzatze-aurrekontua.
- Eskubideak, tasak eta birgaitzeagatik ordaindutako prezio publikoak..
- BEZaren kostua, jasandakoa denean eta ezin denean jasanarazi.

Ez dira jarduketa babesgarriak

- *Balkoiak edo terrazak ixtea.*
- *Balkoiak edo terrazak aldatzea.*
- *Dekorazio-/ornamentu-elementuetako obrak.*
- *Altzari, armairu, ispilu, etxetresna elektrikoak edo antzekoak birgaitzea.*



Zer betekizun dira beharrezkoak?

- Familia bakarreko etxebizitzaren edo birgaituko den eraikinaren elementu pribatiboaren jabe, errentari edo gozameduna izatea edo horiek erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duten eskubide errealen edo bestelakoen titularra izatea
- **Etxebizitza ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar da**, edo obraren ziurtagiria egin eta hiru hilabeteko epean hala izatea.
- Birgaitzearen titularrak direnek osatzen duten bizikidetzta-unitateak honako diru-sarrerera haztatuak izan behar ditu. 39.000 € gehienez, mailegu kualifikatuetarako eta 25.000 € gehienez, dirulaguntzetarako eta interes-tasen subsidiaziorako. [Diru-sarrereren simulazioa](#)
- Eraikinak, gutxienez, 20 urte izan behar ditu.
- Obrak egiteko udal-lizentzia behar da
- **Ez da eskatzen EITrik, legez eska dakiekeen familia bakarreko etxebizitzak edo baserriak ez badira, bederen.**
- **Gutxieneko aurrekontu babesgarria 3.000 euro baino** gehiagokoa izan behar da (**irisgarritasun-obrak salbu**).
- **Gehieneko aurrekontu babesgarria** honela kalkulatu da: etxebizitzaren edo lokalaren gehieneko azalera erabilgarri konputagarriari esku hartuko den udalerriko BPEen gehieneko prezioak kalkulatzeko indarrean dagoen prezioa/m² aplikatuta. Dena den, gehieneko azalera erabilgarri konputagarria ezingo da izan 90 m² baino handiagoa, etxebizitzaren kasuan; 120 m², familia ugarien edo bost pertsonako edo gehiagoko bizikidetzta-unitateen kasuan; eta 30 m² erabilgarri, garaje eta trasteleku lotuen kasuan. 90 m², etxebizitzara bideratutako lokalen kasuan.
- **Jarduketak bukatuta egon beharko dira dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenetik urtebetera.**

Zer laguntza eskuratzeko eskubidea dut?

- **Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza:** aurrekontu babesgarriaren, obra motaren, bizikidetzta-unitatearen haztatutako diru-sarrereren eta birgaitze motaren arabera kalkulatu da; eta integratua (I) edo isolatua (A) izan, aginduan zehaztutako zenbatekoak oinarri hartuta.
- Finantza-neurrien onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo erakundeek itzuli beharrik gabeko banakako laguntzak jaso ahal izango dituzte elementu pribatiboak edo familia bakarreko etxebizitzak birgaitzeko jarduketara babestuak egiteagatik. Laguntza horien zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu babesgarria, obra-mota eta bizikidetzta-unitatearen diru-sarrerera haztatuak hartuko dira kontuan, eta Birgaitze Integratua (I) edo Bereoneratua (A) den kontuan hartuta, honako taula honetan oinarrituta:



COLEGIO OFICIAL DE APAREJADORES Y ARQUITECTOS TÉCNICOS DE ÁLAVA
ARABAKO APAREJADORE ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO OFIZIALA

Senda José Luis Gonzalo Bilbao 1, bajo ■ 01008 Vitoria-Gasteiz ■ Tel. 945 222 866 ■ info@coaatalava.org ■ www.coaatalava.org

Diru-sarrerahaztatuak	Kide kopurua	1. motakoobrak	2. motakoobrak	3. motakoobrak	4. motakoobrak
9.000 euro arte	3 edo gutxiago	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
	3 baino gehiago	I: % 80 A: % 70	I: % 80 U: % 75	I: % 85 U: % 75	I: % 65 A: % 55
9.001 eurotik 15.000 eurora	3 edo gutxiago	I: % 70 A: % 60	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 65	I: % 65 A: % 55
	3 baino gehiago	I: % 75 A: % 65	I: % 80 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
15.001 eta 25.000euro bitartean	3 edo gutxiago	I: % 60 A: % 50	I: % 65 A: % 55	I: % 65 A: % 55	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 65 A: % 55	I: % 70 A: % 60	I: % 70 A: % 60	I: % 60 A: % 50
Gehienez		I: 7.500 euro A: 5.500 euro	I: 9.500 euro A: 7.500 euro	I: 10.000 euro 8.000 euro	I: 5.000 euro 3.000 euro

1. taula: laguntzen ehunekoak eta mugak partikularren obretan.

- **Mailegu kualifikatuak:** aurrekontu babesgarriaren % 100 izan daitezke, Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek eskainitako laguntzak kenduta.

Eta nola aurkez dezaket nire eskabidea??

[Esteka honetan](#)